


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2003ko martxoa

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2003ko martxoan

Urte arteko hazkunde-tasa (2003ko martxoa, 2002ko martxoarekin alderatuta) %3,1ekoa izan da.

2003ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indize Orokorra %0,1 igo zen eta martxorako urte arteko tasa %3,1era iritsi zen, Eustaten datuen arabera. Lehengaien kostuaren hazkundeak (%0,2) markatu du martxoko indize orokorra, beste osagaia, hau da, lan-eskuaren kostua ez baita aldatu aldi horretan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2003



(*)eskainitako gehikuntza martxoko urte artekoa da.

Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2003ko martxoa, 2002ko martxoarekin alderatuta), lan-eskuaren kostua %4,0 igo da eta lehengaien kostua, berriz, %2,4.

2003ko martxoko guztizko kostuen hazkundera era desberdinean banatu da bi azpisektore nagusien artean: Eraikinak azpisektoreko kostuak %0,2 igo dira eta obra zibila azpisektorekoak, ostera, mantendu egin dira erreferentzia-hilean (%0,0). Hala ere, bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran, gehiago igo dira Obra zibileko kostuak (%3,7) Eraikinekoak (%2,9) baino.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2003ko martxoan, hauek izan dituzte inflazio-tasarik handienak: produktu asfaltikoak (%5,4), plastikozko hoditeria (%3,8) eta karea, igeltsua eta eskaiola (%1,7). Bestalde, hileko batez besteko prezioen jaitiera izan dute honako lehengaiak: metalezko hoditeria (%-1,2), pinturak eta bernizak (%-0,9), petroliotik eratorriak (%-0,9) eta kristala (%-0,7) lehengaiak, besteak beste.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2003KO MARTXOA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	122,5	0,1	3,1	2,6	
ERAIKINAK	122,6	0,2	2,9	2,4	
OBRA ZIBILA	122,1	0,0	3,7	3,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,7	0,2	2,4	1,6	
ERAIKINAK	115,9	0,3	2,1	1,3	
OBRA ZIBILA	115,2	0,1	3,5	2,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	133,5	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tlf:+34-945-01 75 05 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es